

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: **1107/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**, 2006ko uztailaren 5ekoa, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen aireko garraioan dituzten eskubideei buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :  
*«REGLAMENTO (CE) No 1107/2006 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 5 de julio de 2006, sobre los derechos de las personas con discapacidad o movilidad reducida en el transporte aéreo (Texto pertinente a efectos delEEE)» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 204/1 de 26/07/2006)*

**1107/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2006ko uztailaren 5koa**

**ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen aireko garraioan dituzten eskubideei buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 80. artikuluan 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Aire-zerbitzuen merkatu bakarrak herritar guztientzat onuragarria izan behar du. Horrenbestez, ezintasunak dituzten pertsonak edo, ezintasuna, adina edo beste edozein arrazoi dela-eta, mugikortasuna murriztua duten pertsonen gainerako herritarrek beste aukera izan behar dute aireko garraioa erabiltzeko. Ezintasunen bat edo mugikortasuna murriztuta duten pertsonen gainerako herritarrek adina eskubide dute zirkulazio-askatasunerako, hautatzeko askatasuna izateko eta bereizkeriarik ez jasateko. Hori aireko garraioari aplikatzen zaio, bai eta bizitzako beste eremu batzuei ere.
- (2) Beraz, ez zaie garraioa ukatu behar ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen, euren ezintasuna edo mugikortasun murriztua argudiotzat hartuz, ez bada legeak ezarritako segurtasun-arrazoi justifikatuengatik. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen erreserbak onartu aurretik, hegazkin-konpainiek, horietako agenteek eta bidaia-antolatzaileek arazoizko ahalegin guztiak egin behar dituzte esandako pertsona horiek dagokien hegaldietan bidaiatzea oztopatzen duen segurtasun-arrazoi justifikaturik ba ote den begiratzeko.
- (3) Erregelamendu honek ez die eragin behar erkidegoko araudian bidaiariei aitortutako gainerako eskubideei, eta, bereziki, bidaia konbinatuei, opor konbinatuei eta zirkuitu

konbinatuei buruzko Kontseiluaren 1990eko ekainaren 13ko 90/314/EEE Zuzentarauan <sup>(3)</sup> ezarritakoei, eta ontziratzeko-ukapena eta hegaldiaren ezeztapen edo atzerapen handia izanez gero, aireko bidaiarientzako konpentsazio- eta laguntza-arau komunak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko otsailaren 11ko 261/2004 (EE) Erregelamenduan <sup>(4)</sup> ezarritakoei. Gertakari batek, lege-egintza horietako baten edo Erregelamendu honen arabera, diru-itzulketarako edo erreserba aldatzeko eskubide bera emango balu, interesdunak eskubide hori behin bakarrik erabili ahal izango du, hoberen datorkion moduan.

- (4) Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen hegazkinean bidaiatzeko gainerako herritarrek bezainbat aukera izan dezaten, beharrezkoa da laguntza ematea horien behar bereziei erantzun ahal izateko, langileak eta beharrezko hornikuntza erabiliz, bai aireportuan, bai aireontzien barruan. Gizarteratze-helburuak laguntza hori kargu gehigarririk gabekoa izan dadila eskatzen du.
- (5) Tratatuaren xedapenetara lotutako estatu kide baten lurraldean kokatutako aireportuetan emandako laguntzak, beste gauza batzuen artean, honakoa ahalbidetu behar die ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen: aireportura iristeko izendatutako puntu jakin batetik hegazkineraino mugitzea, bai eta hegazkinetik aireportutik irteteko izendatutako puntu jakin batera ere, ontziratzea eta lurreratzea barne. Aire-geltokien eraikinetako sarrera nagusietan, erregistratze-mahaietan, tren, aldiriko tren, metro eta autobus geltokietan, taxi geldilekuetan eta jaisteko beste puntu batzuetan eta aireportuko aparkalekuetan, gutxienez, izendatu behar dira puntu horiek. Laguntza ongi antolatu behar da etenaldirik edo berandutzerik sor ez dezan, kalitate onekoa izan dadin Erkidego osoan eta baliabideak ahal den ongien erabil daitezen, aireportua edo aireko linea edozein izanda ere.
- (6) Helburu horiek lortzeko, organo nagusi batek arduratu behar du aireportuetan kalitate oneko laguntza emateaz. Aireportuetako erakunde kudeatzaileek berebiziko garrantzia dutenez

<sup>1</sup> EO C 24, 2006.1.31koa, 12. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko abenduaren 15ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko ekainaren 9koa.

<sup>3</sup> EO L 158, 1990.6.23koa, 59.or.

<sup>4</sup> EO L 46, 2004.2.17koa, 1.or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- aireportu osoko zerbitzuak ematerakoan, horiei egotzi behar zaie erantzukizun nagusi hori.
- (7) Aireportuetako erakunde kudeatzaileak ardura daitezke ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzeaz. Operadore eta hegazkin-konpainia batzuk lehendik egindako lan ona ikusita, erakunde kudeatzaileek laguntza hori emateko hirugarren batzuk kontratatzea da beste aukera bat. Kontratazio hori Erkidegoko zuzenbideko arauak urratu gabe egingo da, kontratazio publikoari buruzkoak barne.
- (8) Laguntzaren finantziatorako, kostuak aireportua erabiltzen duten bidaiari guztien artean berdinduta banatuko dira, horrela, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen garraioa erabiltzeko asmoa ken diezaiekeen edozein arrazoi ekiditeko helburuarekin. Finantziatio-era hoberena honakoa dela irizten da: aireportua erabiltzen duen hegazkin-konpainia bakoitzari, jatorria edo norakoa aireportu horretan duen garraioko bidaiari kopuruaren arabera tarifa ezartzea.
- (9) Hegazkin-konpainia bati ezarri beharreko tarifak erabakitzerakoan eta aplikatzerakoan, gardentasun osoz jokatu behar da. Horrekin, alde batetik, konpainia bati ezarritako tarifa konpainia horrek ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen emandako laguntzaren arabera dela bermatu nahi da, eta, bestetik, tarifa horiek ez direla erabiltzen erakunde kudeatzailearen beste jarduera batzuk, esandako laguntza horrekin zerikusirik ez dutenak, finantzatzeko. Horrenbestez, Erkidegoko aireportuetako lurreko laguntzaren merkatura sartzeari buruzko Kontseiluaren 1996ko urriaren 15eko 96/67/EE Zuzentaraua <sup>(1)</sup> eta, bereziki, jardueren banaketari buruzko xedapenak, Erregelamendu honekin kontraesanean ez daudenean aplikatu behar dira.
- (10) Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzako laguntza antolatzeko eta beren langileak prestatzeko, aireportuek eta hegazkin-konpainiek honako dokumentua hartu behar dute kontuan: Abiazio Zibilar Buruzko Europako Biltzarreko (CEAC) 30. dokumentuaren I zatiko 5. atala eta bere eranskinak, eta, bereziki, horren J eranskinean ezarritako ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen lurreko laguntzarako Jokabide-kodea, Erregelamendu hau onartzen den unean daukan idazketarekin.
- (11) Erakunde kudeatzaileek kontuan hartu behar dituzte ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen beharrak, ahal den neurrian, aireportu edo aire-geltoki berrien diseinua erabakitzerakoan edo berriztatze handiak egiterakoan. Halaber, hegazkin-konpainiek kontuan hartu behar dituzte, ahal den neurrian, esandako behar horiek, hegazkin berrien edo berriztatuen diseinurako.
- (12) Pertsona fisikoen babesa datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askearen ikuspegitik arautzeko den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua <sup>(2)</sup> zorrozki aplikatu behar da honakoa bermatzeko: ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen intimitatea errespetatzen dela, Erregelamendu honetan ezarritako laguntza-betebeharrak betetzeko soilik erabiltzen dela informazioa, eta ez dela erabiltzen zerbitzua eskatzen duten bidaiarien kalterako.
- (13) Aire-garraioko bidaiariei emandako informazio garrantzitsu guztia ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erabilerrazak diren ordezeko formatuetan ere eman behar da, eta gainerako bidaiariei eskaintako hizkuntza beretan egon behar du eskuragarri gutxienez.
- (14) Gurpil-aulkiak edo beste mugitzeko ekipamendu eta laguntzarako gailu batzuk aireportuan maneiatzeko diren bitartean edo aireontzietan garraiatzean galdu egiten badira edo kaltetuak suertatzen badira, nazioarteko, Erkidegoko eta estatuko Zuzenbideari jarraiki, kalte-ordaina eman behar zaio horien jabea den bidaiariari.
- (15) Estatu kideek Erregelamendu honen betetzea ikuskatu eta bermatu behar dute, bai eta horren kontrolerako erakundearen izendatu ere. Ikuskapen-lan horrek ez du eraginik izango ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen, estatuko legee jarraiki, auzitara jo eta kalte-ordainak lortzeko izan dezaketen eskubidean.
- (16) Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona batek erregelamendu hau urratua izan dela irizten badiu, garrantzitsua da pertsona horrek aireportuko erakunde kudeatzaileari edo hegazkin-konpainia interesdunari, dagokionaren arabera, horren berri emateko aukera izatea. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona era horretan gogobetetzen ez bada, erreklamazio bat aurkez dezake Erkidegoko dagokion estatu kideak horretarako izendatutako erakundearen edo erakundeen aurrean.
- (17) Aireportu batean jasotako laguntzari buruzko erreklamazioak aurkezteko, aireportu hori kokatuta dagoen estatu kideak erregelamendu hau betetzeko izendatutako erakundearengana edo erakundeengana jo behar da. Hegazkin-konpainia batengandik jasotako laguntzari buruzko erreklamazioak, berriz, hegazkin-konpainiari operadore-lizentzia eman dion Erkidegoko estatuak erregelamendu hau betetzeko izendatutako erakundearen edo erakundeen aurrean aurkeztu behar dira.

<sup>1</sup> EO L 272, 1996.10.25ekoa, 36. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak (EE) (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

<sup>2</sup> EO L 281, 1995.11.23koa, 31. or. 1882/2003 Erregelamenduak (EE) aldatu zuen Zuzentaraua.

- (18) Estatu kideek zehaztu behar dituzte Erregelamendu hau hausteagatik aplikatu beharreko zehapenak, bai eta horien betetzea bermatu ere. Esandako zehapen horiek, eragindako pertsonari konpentsazio bat ordaintzeko agindua barne har lezaketanak, eraginkorrak, proportziozkoak eta disuasiorakoak izan behar dute.
- (19) Erkidegoko estatuak erregelamendu honen helburuak —hau da, estatu kide guztientzat balioak izango diren babes- eta laguntza-maila altuak bermatzea eta ekonomia-eragileek merkatu bakarrean baldintza bateratuetan jardungo dutela ziurtatzea— beren kabuz behar bezala bete ezin dituztenez eta, beraz, jarduketaren eskala edo ondorioak Erkidego-mailan errazago lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake horren guztiaren inguruan, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Esandako artikulua horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek ez ditu helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.
- (20) Erregelamendu honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu eta aitortutako printzipioak betetzen; hala, beste testu batzuen artean, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean aitortutako printzipioak hartzen ditu kontuan.
- (21) 1987ko abenduaren 2an, Londresen, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handia eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artean akordio bat adostu zen, bi herrialdeetako Kanpo Arazoetako Ministroen adierazpen bateratu batean. Horren ondorio izan ziren Gibraltarreko aireportuaren erabilerarako kooperazio handiago bati buruzko xedapenak. Xedapen horiek ez dira oraindik aplikatu.

**ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:**

*1. artikulua*

**Helburua eta aplikazio-eremua**

1. Erregelamendu honek aireko garraioan ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak babesteko eta horiei laguntza emateko arauak ezartzen ditu; bai horiek diskriminazio-jardueretatik babesteko, bai eta laguntza jasoko dutela bermatzeko ere.
2. Ezintasunak izan edo mugikortasuna murriztua duten pertsonen aplikatuko zaie erregelamendu hau, baldin eta hegaldi komertzialak erabiltzen badituzte edo erabiltzeko asmoa badute Estatu kideren bateko aireportuetan. Estatu kide horiek Tratatuak xedapenetara lotutakoak izan beharko dute. Berariaz, pertsona horiek aireportuetatik irten, aireportuetara iritsi edo aireportuetatik igarotzean aplikatuko da.

3., 4. eta 10. artikuluetan xedatzen dena, halaber, aplikagarria izango da hirugarren herrialde batean kokatutako aireportu batetik iristen diren eta Tratatuak xedapenetara lotutako Erkidegoko estatu batera iristen diren bidaiarientzat, hegaldia antolatzen duen hegazkin-konpainia Erkidegokoa bada.

4. Erregelamendu honek ez die eragingo 90/314/EEE Zuzentarauan eta 261/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritako bidaiarien eskubideei.

5. Erregelamendu honetako xedapenak 96/67/EE Zuzentaraukoekin kontraesanetan badaude, Erregelamendu hau gailentzen da.

6. Erregelamendu honetako xedapenak Gibraltarreko aireportuan aplikatzeak ez die kalterik egingo Espainiako Erresumak eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak aireportua kokatzen den lurraldeko subiranotasunari buruzko gatazkan dituzten jarrera juridikoei.

7. Erregelamendu honetako xedapenen aplikazioa etenda egongo da harik eta Espainiako Erresumako eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuko Kanpo Arazoetako Ministroen 1987ko abenduaren 2ko adierazpen bateratuen zehaztutako erregimenaren aplikazioa hasi arte. Espainiako eta Erresuma Batuko gobernuak emango diote esandako aplikazio-dataren berri Kontseiluari.

*2. artikulua*

**Definizioak**

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) «ezintasuna duen pertsona» edo «mugikortasun murriztua duen pertsona»: ezintasun fisikoagatik (zentzumen- edo mugimenezintasuna, iraunkorra edo aldi baterakoa), ezintasun edo urritasun intelektualagatik, edo beste edozein ezintasun-arrazoierengatik, edo adinagatik, garraioa erabiltzeko mugikortasuna murriztua duen pertsona oro, horren egoerak arreta egokia eta gainerako bidaiarien eskura jarritako zerbitzua bere beharretara moldatzea eskatzen duenean;
- b) «hegazkin-konpainia»: baliozko ustiapen-lizentzia bat daukan aire-garraioeko enpresa oro;
- c) «hegaldia antolatzen duen hegazkin-konpainia»: bidaiari batekin daukan kontratu baten arabera, edo bidaiari horrekin kontratu bidez lotutako beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean, hegaldi bat egiten duen edo egiteko asmoa duen hegazkin-konpainia;
- d) «Erkidegoko hegazkin-konpainia»: baliozko ustiapen-lizentziak dituzten hegazkin-konpainiak; betiere, lizentziok estatu kideek emandakoak badira Kontseiluaren 2407/92 (EEE) Erregelamenduaren arabera (hegazkin-konpainiei lizentziak emateari buruzko

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- erregelamendua da hori, 1992ko uztailaren 23koa<sup>1)</sup>);
- e) «bidaia-antolatzaile»: 90/314/EEE Zuzentarauko 2. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan definitutako antolatzaile edo txikizkari oro, hegazkin-konpainiak salbu;
  - f) «aireportuko erakunde kudeatzailea» edo erakunde kudeatzailea»: estatuko legediaren arabera, aireportuetako azpiegituren administrazioa eta kudeaketa eta aireportuko edo dagokion aireportu-sistemako antolatzaile guztien jardueren koordinazioa eta kontrola helburu nagusizat duen erakundea;
  - g) «aireportuaren erabiltzaile»: jatorria edo jomuga dagokion aireportuan duen aire bidezko bidaiarien garraioaren erantzule den pertsona fisiko edo juridiko oro;
  - h) «aireportuen erabiltzaileen batzordea»: aireportuen erabiltzaileen edo horiek ordezkatzan dituzten erakundeetako ordezkarien batzordea;
  - i) «erreserba»: hegazkin-konpainiak edo bidaia-antolatzaileak erreserba onartu eta erregistratu duela erakusten duen txartela edo beste frogaren bat izatea bidaiariak;
  - j) «aireportua»: hegazkinen lurreratze, aireratze eta maniobretarako bereziki prestatutako lur oro, ekintza horiek aireko trafikoa eta zerbitzuertarako behar dituzten instalazio osagarriak barne, eta aireko zerbitzu komertzialetarako behar diren instalazioak ere barne;
  - k) «aireportuko aparkalekua»: ibilgailu automobiletarako gordetako aparkalekua, aireportuaren eremu barruan kokatua edo aireportu bateko erakunde kudeatzaileak zuzenean kontrolatua, eta aireportu hori erabiltzen duten bidaiariek erabiltzen dutena;
  - l) «bidaiarien aire-garraiorako zerbitzu komertziala»: aire-garraiorako konpainia batek antolatutako bidaiarien garraiorako aire-zerbitzua, banakako ordainketa bidez edo pakete baten barnean, jendeari oro har hegaldi erregularrak edo ez erregularrak eskaintzen dizkiona.

### *3. artikulua*

#### **Ontziratzea ukatzeko debekua**

Hegazkin-konpainiek, horietako agenteek eta bidaia-antolatzaileek ezingo dituzte honakoak ukatu, bidaiariaren ezintasuna edo mugikortasun murriztua arrazoituz:

- a) Erregelamendu honetako xedapenetara lotutako aireportu batetik irteten den edo bertara heltzen den hegaldi baterako erreserba onartzea;
- b) ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat horrelako aireportu batean ontziratzea, beti ere, pertsona horrek baliozko txartela eta erreserba baldin badauzka.

### *4. artikulua*

#### **Salbuespenak, baldintza bereziak eta informazioa**

1. Erregelamendu honen 3. artikuluan xedatutako gorabehera, hegazkin-konpainiek edo horietako agenteek edo bidaia-antolatzaileek ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat ontzira dadin uka dezakete, ezintasuna edo mugikortasun murriztua arrazoituz, baldin eta:
  - a) nazioarteko, Erkidegoko edo estatuko legediak ezarritako segurtasun-baldintzak betetzeko edo dagokion hegazkin-konpainiari aireko operadore izateko ziurtagiria eman zion agintariak ezarritako segurtasun-baldintzak betetzeko bada;
  - b) aireontziaren neurriak edo ateen fisikoki ezinezkoa egiten badute ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona ontziratzea edo garraiatzea.

Lehen paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan azaldutako arrazoiengatik erreserba bat onartzea ukatzen bada, esandako pertsona horri proposamen egoki bat egiteko arrazoizko ahaleginak egin beharko ditu hegazkin-konpainiak, horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak.

Ezintasuna edo mugikortasun murriztua izateagatik ontziratzea ukatu zaion pertsona orori eta horrekin bidaiatzen duenari, artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatuz, diru-itzulketarako eskubidea edo beste garraio bat erabiltzea eskainiko zaio, 261/2004 (EE) Erregelamenduko 8. artikulua betez. Itzulerako hegaldi baterako edo beste garraio baterako aukera izateko eskubidea erabili ahal izateko, segurtasun-xedapen guztiak bete beharko dira.

2. 1. paragrafoko lehenengo lerrokadako a) idatz-zatian aipatutako baldintza berberetan, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsonak behar duen laguntza eman ahal izango dion beste pertsona batek lagunduta bidaia dezan exijitu ahal izango du hegazkin-konpainiak, horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak.

3. Hegazkin-konpainiek edo horien agenteek jendearen eskura jarriko dituzte, formatu erabilerrazetan eta, gutxienez, gainerako bidaiariei eskainitako hizkuntza beretan, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen garraioari aplikatzen dizkieten segurtasun-arauak, eta, aireontziaren neurria dela eta, pertsona horien edo

<sup>1</sup> EO L 240, 1992.8.24koa, 1.or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

mugikortasun-gailuen garraioan ezarritako murrizketa oro. Bidaia-antolatzaileak arduratuko dira antolatutako, saldutako edo salgai jarritako bidaia konbinatueta, opor konbinatueta eta zirkuitu konbinatueta sartzan diren hegaldietako segurtasun-arau eta murrizketa horiek eskuragarri egon daitezzen.

4. Hegazkin-konpainia bat, horren agentea edo bidaia-antolatzaile bat 1. edo 2. paragrafoetan ezarritako salbuespenez baliatzen bada, arrazoiak idatziz jakinarazi beharko dizkio ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsonari. Pertsona horrek hala eskatzen badu, hegazkin-konpainiak, horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak esandako arrazoi horien berri emango dio eskaera egin zeneko datatik gehienez bost egun balioduneko epean.

### *5. artikulua*

#### **Iristeko eta irteteko puntuen izendapena**

1. Aireportuaren erabiltzaileekin —aireportuetako erabiltzaileen batzordearen bidez, horrelakorik dagoenean— eta ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ordezkarik diren erakundeekin lankidetzan, aireportuetako erakunde kudeatzaileek, lekuko baldintzak kontuan hartuta, iristeko eta irteteko puntuak izendatuko dituzte aireportuaren eremuan edo erakunde kudeatzaileak zuzenean kontrolatutako lekuetan, bai aire-geltokien eraikinen barruan, bai eta kanpoan ere. Puntu horietan, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak aireportura iritsi direla jakinarazteko eta laguntza eskatzeko aukera izango dute.

2. Erregelamendu honen 1. paragrafoan aipatutako iristeko eta irteteko puntuak argi seinaleztatuta egongo dira, eta aireportuari buruzko oinarriko informazioa izango dute formatu erabilerrazetan eskuragarri.

### *6. artikulua*

#### **Informazioa helaraztea**

1. Hegazkin-konpainiek, horien agenteek edo bidaia-antolatzaileek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza eskatzeko egindako jakinarazpenak jaso ahal izateko Tratatuaren xedapenetara lotutako Estatu kide baten lurraldean kokatutako saltoki guztietan, telefono eta Internet bidez egindako salmentak barne.

2. Hegazkin-konpainia batek, horren agenteak edo bidaia-antolatzaile batek, hegaldi batentzat jakitera emandako irteera ordua baino 48 ordu lehenago, gutxienez, laguntza-behar bati buruzko jakinarazpena jasotzen badu, beranduena ere, hegaldirako jakitera emandako irteera ordua baino 36 ordu lehenago helaraziko die informazio hori:

- a) irteera, jomuga eta igarotzako aireportuetako erakunde kudeatzaileei, eta
- b) hegaldia antolatzen duen hegazkin-konpainiari,

erreserba ez bada horrekin egin, eta, betiere, jakinarazpena jasotako unean hegaldia antolatzen duen hegazkin-konpainia zein den jakiten bada; jakiten ez bada, informazioa ahal bezain azkar helaraziko da.

3. Bigarren paragrafoan azaldutakoak ez diren egoera guztietan, hegazkin-konpainiak edo horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak informazioa ahal bezain azkar zabalduko dute.

4. Hegaldia irten ondoren eta ahal bezain azkar, hegaldia antolatzen duen hegazkin-konpainiak, jomugako aireportua Tratatuaren xedapenetara lotutako estatu kide baten lurraldean aurkitzen bada, honakoa jakinaraziko dio bertako erakunde kudeatzaileari: ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten eta 1. eranskinean zehaztutako laguntza beharko duten zenbat pertsona doazen hegazkinean eta zeintzuk diren laguntza horren ezaugarriak.

### *7. artikulua*

#### **Aireportuetan laguntza jasotzeko eskubidea**

1. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat aireportura iristen denean hegaldi bat hartzeko, I. eranskinean zehaztutako laguntza jasoko duela bermatzeko erantzukizuna hartuko du aireportuko erakunde kudeatzaileak. Horrela, pertsona horrek erreserbatutako hegaldia hartu ahal izango du; betiere, bere laguntza-behar bereziak hegaldirako jakitera emandako irteera-ordua baino 48 ordu lehenago jakinarazi bazaizkio dagokien hegazkin-konpainiari, horren agenteari edo bidaia-antolatzaileari. Jakinarazpen hori itzulerako bidaiari buruzkoa ere izango da, joaneko eta itzulerako bidaia konpainia berarekin kontratatatu badira.

2. Itsu-txakur bat erabiltzeko beharra dagoenean, animalia onartua izango da, aireontzietan itsu-txakurrak garraiatzeari buruzko estatuko legeriaren arabera, hala badagokio, eta, betiere, baldin eta aurretik hegazkin-konpainiari edo horren agenteari edo bidaia-antolatzaileari jakinarazi bazaio.

3. Lehenengo paragrafoaren arabera jakinarazpenik egiten ez bada, erakunde kudeatzaileak arrazoizko ahaleginak egingo ditu I. eranskinean zehaztutako laguntza emateko, pertsona interesdunak erreserbatutako hegaldia hartu ahal izan dezan.

4. Lehenengo paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta:

- a) pertsona hori fakturazioan azaltzen bada:
  - i) hegazkin-konpainiak edo horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak aurretik eta idatziz (baita bitarteko elektronikoen bidez ere) ezarritako orduan, edo
  - ii) ordurik ezarri ez bada, jakitera emandako irteera ordua baino ordu bete lehenago

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

gutxienez, edo

b) pertsona hori, 5. artikularen arabera, aireportuko eremuaren barruan izendatutako puntuetako batera iristen bada:

i) hegazkin-konpainiak edo horren agenteak edo bidaia-antolatzaileak aurretik eta idatziz (baita bitarteko elektronikoen bidez ere) ezarritako orduan, edo

ii) ordurik ezarri ez bada, jakitera emandako irteera ordua baino bi ordu lehenago gutxienez.

5. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat erregelamendu honetako xedapenetara lotutako aireportu batetik igarotzen bada, edo hegazkin-konpainia batek edo bidaia-antolatzaile batek erreserbatutako hegalditik beste batera transferitzen badu, pertsona horrek I. eranskinean zehaztutako laguntza jasoko duela bermatzeko erantzukizuna hartuko du aireportuko erakunde kudeatzaileak. Horrela, pertsona horrek erreserbatutako hegaldua hartu ahal izango du.

6. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat erregelamendu honetako xedapenetara lotutako aireportu batean lurrartzen bada, pertsona horrek I. eranskinean zehaztutako laguntza jasoko duela bermatzeko erantzukizuna hartuko du aireportuko erakunde kudeatzaileak, pertsona hori 5. artikuluan aipatutako irteera puntura iritsi ahal izan dadin.

7. Emandako laguntza, ahal den neurrian, bidaiariaren behar berezietara egokituko da.

### *8. artikulua*

#### **Aireportuetan laguntza emateko ardura**

1. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak, aparteko errekarerik ordaindu gabe, I. eranskinean zehaztutako laguntza jasoko dutela bermatzeko erantzukizuna hartuko dute aireportuetako erakunde kudeatzaileak.

2. Aireportuetako erakunde kudeatzaileek laguntza hori beren kabuz eman ahal izango dute. Erakunde kudeatzaileak, bere ardura betetzeko, beste aukera bat ere badauka: laguntza hori emateko hirugarren batzuk kontrata ditzake, betiere, 9. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako kalitate-arauak betetzen direla bermatzen badu. Aireportuaren erabiltzaileekin lankidetzan — aireportuetako erabiltzaileen batzordearen bidez, horrelakorik badago—, erakunde kudeatzaileak, bere ekimenez edo aurretik eskaera egin zaiolako, hegazkin-konpainia batek egindakoa barne, horrelako kontratuak egiteko ahalmena izango du, dagokion aireportuan eskaintzen diren zerbitzuak kontuan hartuta. Eskaerari uko eginez gero, erakunde kudeatzaileak arrazoiak idatziz eman beharko ditu.

3. Aireportuetako erakunde kudeatzaileek tarifa berezi bat ezarri ahal izango diete aireportuaren

erabiltzaileei, bereizkeriarik egin gabe, laguntza finantzatzeko.

4. Tarifa berezi hori arrazoizkoa, kostuen arabera eta gardentasunez ezarria izango da. Aireportuko erakunde kudeatzaileak aireportuaren erabiltzaileekin lankidetzan ezarriko du tarifa hori, aireportuetako erabiltzaileen batzordearen bidez, horrelakorik badago, edo beste edozein erakunde egokiren bidez. Tarifa hori aireportuaren erabiltzaileen artean banatuko da, horietako bakoitzak jatorria eta norakoa aireportu horretan duten zenbat pertsona garraiatzen dituen kontuan hartuta.

5. Aireportuko erakunde kudeatzaileak, merkataritza-jardueretan ohikoa den bezala, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen emandako laguntzari dagozkion jardueren kontuak eta bere gainerako jardueren kontuak bananduta edukiko ditu.

6. Aireportuko erakunde kudeatzaileak urteko laburpen ikuskatu bat jarriko du erabiltzaileen eskura, erabiltzaileen batzordearen bidez, horrelakorik dagoenean, edo beste edozein erakunde egokiren bidez, eta, 14. artikuluari jarraituz, erregelamendu honen aplikazioaren erantzule diren erakundeen eskura. Laburpen horretan azalduko dira ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen emandako laguntzak direla-eta jasotako tarifak eta egindako gastuak.

### *9. artikulua*

#### **Laguntzaren kalitate-arauak**

1. Urtero 150.000 bidaiari komertzial baino gutxiago izaten dituzten aireportuetan salbu, erakunde kudeatzaileek I. eranskinean azaltzen den laguntzari aplikagarri izango zaizkion kalitate-arauak ezarriko dituzte, eta laguntza hori betetzeko beharko diren baliabideei buruzko baldintzak ezarriko dituzte aireportuaren erabiltzaileekin lankidetzan — aireportuetako erabiltzaileen batzordearen bidez, horrelakorik badago, edo beste edozein erakunde egokiren bidez— eta ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten bidaiarien ordezkaritza diren erakundeekin lankidetzan.

2. Arau horiek ezartzerakoan, nazioartean ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen garraioa errazteko onartutako politikak eta jokabide-kodeak hartuko dituzte kontuan, eta, bereziki, Abiazio Zibilari Buruzko Europako Biltzarren (CEAC) Jokabide Kodea mugikortasun murriztua duten pertsonen lurrean laguntzeko.

3. Aireportuetako erakunde kudeatzaileek argitaratu egingo dituzte beren kalitate-arauak.

4. Hegazkin-konpainiek eta erakunde kudeatzaileek horrela adostuz gero, hegazkin-konpainiek aireportutik eta aireportura garraiatutako bidaiariei 1. paragrafoan ezarritako arauetan zehaztutakoa baino laguntza handiagoa eman ahal

izango diete erakunde kudeatzaileek, edo I. eranskinean ezarritakoen osagarri diren zerbitzuak eskaini.

5. Maila altuagoko laguntza edo laguntza osagarri hori finantzatzeko, erakunde kudeatzaileek 8. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren osagarri izango den tarifa bat gehitu ahal izango diete hegazkin-konpainiei. Tarifa hau ere gardentasunez erabakia eta aplikatua eta kostuen araberakoa izango da, eta hegazkin-konpainia interesdunei aurretik kontsulta ginez ezarriko da.

#### *10. artikulua*

##### **Hegazkin-konpainiek emandako laguntza**

Hegazkin-konpainiek, kosturik gehitu gabe, II. eranskinean zehaztutako laguntza emango diete ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen erregelamendu honen xedapenetara lotutako aireportu batetik irten, bertara iritsi edo bertatik igarotzen direnean, baldin eta 7. artikuluko 1., 2. eta 4. paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

#### *11. artikulua*

##### **Prestakuntza**

Hegazkin-konpainiek eta aireportuetako erakunde kudeatzaileek:

- a) euren langileek eta ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza zuzena ematen dieten azpikontratutako langileek ezintasunak edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezko ezagutza daukatela bermatuko dute;
- b) tratu-berdintasunari buruzko eta ezintasunarekiko sentsibilizazioari buruzko prestakuntza emango diote aireportuan lan egiten duen eta bidaiariekin tratu zuzena duen langile orori;
- c) langile hasi berriek, kontratazio unean, ezintasunari buruzko prestakuntza jasotzen dutela, eta gainerako langileek, behar denean, eguneratzeko ikastaroak jasotzen dituztela bermatuko dute.

#### *12. artikulua*

##### **Kalte-ordainak gurpil-aulkiak, mugitzeko beste ekipamendu batzuk eta laguntzarako gailuak galdu edo kaltetu izanagatik**

Gurpil-aulkiak edo beste mugitzeko ekipamendu edo laguntzarako gailu batzuk, aireportuan maneiatzen diren bitartean edo aireontzietan garraiatzean, galdu egiten badira edo kaltetuak suertatzen badira, kalte-ordaina emango zaio horien jabea den bidaiariari, nazioarteko, Erkidegoko eta nazioko zuzenbideari jarraiki.

#### *13. artikulua*

##### **Ez da salbuespenik onartzen**

Ezin dira murriztu edo indargabetu erregelamendu honek ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonetik arautzen dituen betebeharrak.

#### *14. artikulua*

##### **Aplikaziorako erakundeak eta eskumenak**

1. Estatu kide bakoitzak erregelamendu honen aplikazioaren erantzule izango diren erakunde bat edo batzuk izendatuko ditu, beren lurraldean kokatutako aireportuetatik irteten diren edo horietara iristen diren hegaldiei dagokienez. Beharrezkoa balitz, erakunde horrek edo horiek ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen eskubideak betetzen direla bermatzeko neurriak har ditzake(te), 9. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako kalitate-arauen zaintzea barne. Estatu kideek izendatutako erakundearen izenaren edo erakundeen izenen berri emango diote Batzordeari.

2. Behar denean, 1. paragrafoaren arabera erregelamendu honen aplikazioaren erantzule den edo diren erakundeak edo erakundeek 8. artikulua zuzenki aplikatzen dela ere bermatu behar dutela ezarriko dute estatu kideek, bidegabeko lehia ekiditera zuzendutako tarifei dagokiena barne. Halaber, estatu kideek horretarako erakunde berezi bat izendatu ahal izango dute.

#### *15. artikulua*

##### **Erreklamazio-prozedura**

1. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona batek erregelamendu hau hautsia izan dela irizten badiu, pertsona horrek aireportuko erakunde kudeatzaileari edo hegazkin-konpainia interesdunari, dagokionaren arabera, horren berri eman ahal izango dio.

2. Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona hori era horretan lasai geratzen ez bada, erreklamazio bat aurkez dezake Erregelamendu hau ustez hautsi izanagatik 14. artikuluko 1. paragrafoaren arabera izendatutako edozein erakunderen aurrean, edo estatu kideek izendatutako beste edozein erakunde eskudunen aurrean.

3. Estatu kide bateko erakunde batek erreklamazio bat jasotzen badu, eta erreklamazio hori beste Estatu kide batean izendatutako erakunde baten eskumeneko gai bati buruzkoa bada, azken erakunde horri igorriko dio erreklamazioa.

4. Estatu kideek neurriak hartuko dituzte ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen erregelamendu honen eremuan dituzten eskubideei buruzko informazioa jaso dezaten, bai eta izendatutako erakundeen aurrean erreklamazioak aurkezteko duten aukerari buruzko informazioa ere.



*16. artikulua*

**Zehapenak**

Estatu kideek zehaztuko dituzte erregelamendu honen xedapenak hausteagatik aplikatu beharreko zehapenak, bai eta horien betetzea bermatu ere. Aurreikusitako zehapenak eraginkorrak, proportziozkoak eta disuasiorakoak izan behar dute. Estatu kideek xedapen horien berri emango diote Batzordeari, eta aurrerago horiek aldatuz gero, ahal bezain azkar jakinaraziko diote.

*17. artikulua*

**Txostena**

Beranduenez 2010eko urtarrilaren 1ean, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari erregelamendu honen aplikazioari eta emaitzei

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzeak izango dira.

Estrasburgon, 2006ko uztailaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
J. J. BORRELL FONTELLES

buruzko txostena aurkeztuko dio. Behar izanez gero, txosten horri atxikiko zaizkio erregelamendu honen xedapenak zehazten edo aldatzen dituzten lege-proposamenak.

*18. artikulua*

**Indarrean jartzea**

*Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeit egunera jarriko da indarrean erregelamendu hau.

2008ko uztailaren 26tik aurrera aplikatu ahal izango da, 3. eta 4. artikulua salbu, horiek 2007ko uztailaren 26tik aurrera aplikatuko baitira.

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
P. .

## I. ERANSKINA

### Aireportuetako erakunde kudeatzaileen ardurapean emandako laguntza

Beharrezko laguntza eta xedapenak ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen honakoak egin ditzaten:

- aireportura iritsi direla jakinarazi eta laguntza eskatu, 5. artikuluan aipatutako aire-geltokien eraikinen barruan eta kanpoan izendatutako puntuetan,
- izendatutako puntu horietako batetik erregistratze-mahaira joan,
- txartela egiaztatu eta ekipajea erregistratu,
- erregistratze-mahaitik hegazkinera joan, emigrazio, aduana eta segurtasun kontroleratik igaroz,
- hegazkineratu; horretarako, goragailuak, gurpil-aulkiak edo dagozkion beste mota bateko laguntzak aurreikusi beharko dira,
- hegazkinetiko atetik beren eserlekuetara joan,
- hegazkinaren barruan, beren ekipajea gorde eta berreskuratu,
- beren eserlekuetatik hegazkinetiko atera joan,
- hegazkinetik jaitsi; horretarako, goragailuak, gurpil-aulkiak edo bestelako laguntza-mota egokiak aurreikusi beharko dira,
- hegazkinetik ekipajea jasotzeko gelara joan, immigrazio eta aduana kontroleratik igaroz,
- ekipajea jasotzeko gelatik izendatutako puntu batera joan,
- iragaitzan daudenean, beste hegaldi batzuekin lotura egin; horretarako, beharra izanez gero, airean eta lurlean, eta aire-geltokien barruan eta horien artean, laguntza aurreikusi beharko da,
- beharra izanez gero, komunetara joan.

Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat beste pertsona batek lagunduta badao, pertsona horrek, horrela eskatzen bazaio, behar den laguntza emateko prest egon beharko du, bai aireportuan, bai eta ontziratzean eta lurreratzean ere.

Mugitzeko ekipamendu guztiak lurlean maneatzea, gurpil-aulki elektrikoak bezalako ekipamenduak barne (beti ere, 48 ordu lehenago jakinarazi bada, eta hegazkinetiko espazio faltak galarazten ez badu, eta hori guztia gai arriskutsuen garraioari buruzko dagokion legediaren aplikazioaren arabera).

Galdutako edo hondatutako mugikortasun-ekipamendua ordezkatzeko, baina ez ezinbestean ekipamendu-mota berarekin.

Dagokionean, kreditatutako itsu-txakurrei laguntza ematea.

Hegaldiak hartu ahal izateko beharrezko informazioa ematea formatu erabilerrazean.

*II. ERANSKINA*

**Hegazkin-konpainiek emandako laguntza**

Kreditatutako itsu-txakurrak kabinan garraiatzea, araudi nazionalak betez.

Medikuntza-ekipamenduaz gain, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bakoitzeko mugitzeko ekipamendu bat edo bi, gurpil-aulki elektrikoak barne (betiere, 48 ordu lehenago jakinarazi bada, eta hegazkineko espazio faltak galarazten ez badu, eta hori guztia gai arriskutsuen garraioari buruzko dagokion legedia betetzera baldintzatuta izanik).

Hegaldiei buruzko informazio garrantzitsua ematea formatu erabilerrazean.

Jarlekuak ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen eta eskakizuna egin duen pertsona bakoitzaren beharren arabera prestatzeko arazoizko ahalegin guztiak egitea; betiere, horretarako aukera badago eta segurtasun-baldintzak betetzen badira.

Beharrezkoa bada, komunetara joateko laguntza ematea.

Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona bat beste pertsona batek lagunduta badao, hegazkin-konpainiak arazoizko ahalegin guztiak egingo ditu laguntzaileari eserleku bat eskaintzeko ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsonaren ondoan.